

LAGUNBUSAREN FUNTZIONAMENDUA

1. **IBILBIDEA:** Bakarra dugu oraingoan: Triangulotik Sakramentinoetara ibai bazterretik, zebra bide bakarra semaforotik pasaz.
2. **ORDUTEGIA:**
 - **Triangulotik:** Lagunbusa goizetan 8:40 abiatzen da eta eguerditan 14:40. Arduradunak 10 min lehenago egon behar du.
 - **Ikastolatik:** 12:30 tan eta 17:00 etan. Arduradunak 5 min lehenago egon behar du Lagunbusa plazan (1 solairuan).
3. Oinez joaten gara eta elkarrekin, hau da, ezin da bizikleta, patinete eta horrelakorik eraman.
4. Arduradunak txaleko hori bat eramaten du soinean umeen segurtasuna bermatuz.
5. Ume kopuruaren arabera antolatzen dira arduradunaren joan-etorri txandak.
6. Gurasoen arteko egitasmoa denez, doan da.